

Eibar.org

Blogak kudeatzeko argibideak

Eibar, 2007-12-21

1. Blogaren egitura orokorra kanpotik
2. Registratzeko
3. Edizio pestañak
 - a. edukiak
 - b. editatu
 - c. irudia
 - d. eskumako zutabeko aurkezpen testua
 - e. kontaktua
 - f. zutabearen antolaketa
4. Artikuluak gehitzeko
 - a. Argitaratutako artikuluak aldatzeko
5. Elementuak gehitzeko (atalak, irudiak...)
6. Testu editorea
 - a. Loturak
 - b. Irudiak

Oharra: Oier Araolazaren "Dantzing" bloga erabiliko dugu argibideak emateko.

<http://eibar.org/blogak/oier>

Berori da garbiena. Besteok elementu gehiago izan ditzakezue, bakoitzak berak sortutako eta gehitutako elementuak, azpiatalak, argazkiak... Hala ere, atal eta karpeten izenak berdinak (edo oso-oso antzerakoak) izango dira kasu guztietan.

Oharra2: pdf honetan lehenengo aurrerapena bakarrik doa; azalpen gehiago eta hobeak ikastaroan.

1.- Blogaren egitura orokorra kanpotik

Blog guztien egitura, gutxi gorabehera, berbera da.

- **Header** edo goiburua (oraingoz, gehienok, berdin-berdina)
- Blogaren **izenburua**
- Erdi-erdian **mezuak**, orden kronologikoan
- Eskumako zutabea:
 1. Norbere **irudia** (argazkia, logoa...).
 2. **Aurkezpen testua**
 3. **Eduki estatikoen zuhaitza** (atalak, azpiatalak, fitxategiak...)
 4. **Honi buruz**: kontaktu-formularioa (zuei idazteko), artikuluen artxibo historikoa, hileka, RSSak

Azken puntu hori izan ezik (**Honi buruz**), beste guztia editagarria da.

Izenburua

Headerra

Irudia

Aurkezpen testua

Eduki finkoa

Dantzing

Dantza ikasketak non?

Argia, 2007-11-30

"Edozein ergelek zuzendu dezake estatu bat eta futbol entrenatzaile izateko karneta behar da?". [Piterman](#)-ek —futbol taldeak hondorutzen espezialista den ukrainiar aberatsak— mozkorren eta eroen pareko egiak esaten dituela frogatu zuen esaldi horrekin. Arrazoi osoa zuen. Titulu gabe ezinezkoa gertatzen zaigu lanpostu bukunik —presidentearena salbu— aurkitzea. Gaur egun edozer gauza ikasi daiteke eta edozein jakintza arlotan eskura daiteke dibosozko agiria. Badira salbuespenak ordea. Euskal dantza tradizionalan adibidez, ez daukagu ez ikasketarik ez karnetik.

Azken urteotan gero eta Musika Eskola gehiagotan ari da dantza tradizionala irakasten. Ikasleek izena gogoz ematen dute, baina gero irakasleak aurkitzen lanak dituzte arduradunek. Dantza talderen batean ibiltako edozein dantzari esku zabalik hartzen dute. Udalaren menpeko Musika eta Dantza Eskolek arazoak dituzte kontratatu nahi duten irakaslearen titulazioa justifikatzeko garaia iristen denean. Dantza irakasleak ez duela titulurik! Nola izango du ba titulu hori ez bada existitzen!

Bilboko Alondegian Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskola [ezarriko dutela](#) irakurri [dugu prentsan](#). Antzerki eta dantza munduko hainbat lagunek plataforma bat osatu zuten horrelako eskola bat sortzeko eskaerarekin, eta Jauriaritzaren Hezkuntza Sailak horren ondorioz, edo horren beharrik gabe, baina eskola sortzea erabaki du.

Antzerki eta dantza ikasketak egin ahal izango dira Arte Eszenikoen eskola horretan. Antzerkiari dagokionez interpretazio zein zuzendaritza espezialitateak irakatsiko dira, eta dantzari dagokionez dantza klasikoa eta qaraikidea ikasketak lerroko eskainiko dira. Baina, dantza tradizionala ikasteko

Oier Araolaza
Eibarren jaio nintzen, Elgoibarren erregistratu ninduten eta irakurtzen ikasi ondoren itzuli nintzen Eibarrera eta bertan bizi naiz harrezkero. Kazetaritza eta Gizarte eta Kulturako Antropologia ikasketak egin ditut, baina nonbait nire izenaren ondoren titulu bat jarri behar denean *dantzaria* jartzen dut gustoren. Izan ere dantza gozaten dut gehien, eta dantza-kontuetan joaten zaizkit indar gehienak.

[Oier Araolaza Arrieta](#)

HONI BURUZ
[Kontaktua](#)
[Artxiboa](#)
[RSS 2.0 jarria](#)
[Erantzunen RSS jarria](#)

2.- Registratzeko

1. Goiko menuan "**Sartu**" botoia sakatu.
2. "**Login**" orrialdera sartzerakoan, **erabiltzaile** izena eta **pasahitza** sartu.



Saioa hasi mesedez

Atariaren atal honetan sartzeko, saioa hasi behar duzu zure erabiltzaile izena eta pasahitza erabiliz.

Zure pasahitza ahaztu baduzu, [egun klik hemen berriz lortzeko](#)

Kontuaren informazioa

Saioa hasteko izena
Erabiltzaile-izenak maiuskulak eta minuskulak bereizi egiten ditu, beraz ziurtatu maiuskulak blokeatzeko tekla gaituta ez dagoela.

Pasahitza
Pasahitzak maiuskula eta minuskulak bereizi egiten ditu, beraz ziurtatu maiuskulak blokeatzeko tekla gaituta ez dagoela.

Mesedez, arnaitzen duzunean sistematik atera edo nabigatzailea itxi.

3.- Edizio-pantailak eta pestañak

Behin blog barrura sartuz gero, **edizio-pantaila** agertuko zaigu, ondorengo **pestaña** edo aukerekin:



Pestaña horietako gehienak blogaren atal guztietan agertuko zaizkizue, bai blogaren edizio-pantaila orokorrean, bai azpiataletan, bai blogeko artikuluko bat editatzeko orduan.

1. **Edukiak:** atal horretan ditugun atalak, azpiatalak, fitxategiak, argazkiak...
2. **Ikusi:** orrialdearen bista
3. **Editatu:** orrialde aldatzeko tresnak
4. **Propietateak:** Ezaugarri orokorrak: elementuaren data, menuetan azaldu behar ote duen...
5. **Gaiak:** EZ IKUTU
6. **Artxiboa:** EZ IKUTU
7. **Partekatzea:** EZ IKUTU
8. **Zirriborroak:** EZ IKUTU
9. **Iruzkina:** EZ IKUTU
10. **Aliases:** EZ IKUTU
11. **Aurkezpen testua:** eskumako zutabeko sarrerako testua aldatzeko
12. **Kontakturako:** erabiltzaileen mezuak zein helbidetan jaso nahi dituzun zehazteko
13. **Zutabearen antolaketa:** eskumako zutabeko elementuen ordena zehazteko
14. **css:** Blogaren diseinua. Ahal dela, EZ IKUTU
15. **Akzioak:** aukeratuta daukagun elementua ezabatzeko, kopiatzeko edo berrizendatzeko
16. **Elementua gehitu:** blogean elementuak gehitzeko: artikulua, atalak, irudiak edo fitxategiak
17. **Egoera:** artikulua argitaratzeko (edo argitaratutakoak ezkatatzeko)

3.1.- "edukiak" pestaña



The screenshot shows the CMS interface for 'Dantzing'. The 'edukiak' tab is highlighted. Below the navigation bar, there is a message 'Elementuak ezabatu dira.' (Elements deleted). The main content area displays a table of content items:

<input type="checkbox"/>	Izenburua ▲	Tamaina	Aldatua	Egoera
<input type="checkbox"/>	 Eskumako Zutabeko Sarrera	1 kB	2007/12/20 13:31	Ziriborro Publikoa
<input type="checkbox"/>	 Artxiboa	1 kB	2007/12/13 16:22	Ziriborro Publikoa
<input type="checkbox"/>	 Oier Araolaza Arrieta	1 kB	2007/12/13 16:38	Ziriborro Publikoa
<input type="checkbox"/>	 images	1 kB	2007/12/20 13:39	Ziriborro Publikoa

At the bottom of the table, there are action buttons: **kopiatu**, **ebaki**, **izena aldatu**, **ezabatu**, and **egoera aldatu**.

Edukiak pestañaren bidez, gauden atal barruko elementuak ikusiko ditugu. Blogaren sarreran aukeratzen badugu "edukiak", gure blogeko eduki guztiak erakutsiko dizkigu.

Kasu guztietan 4 elementu hauek aurkituko ditugu:

1. **Artxiboa**: bertan gordetzen dira (automatikoki) artikuluko guztiak. Karpeta hau EZ IKUTU.
2. **Images**: karpeta horretan gordeko ditugu blogean erakutsi edo linkatu nahi ditugun irudiak eta fitxategiak (excel, pdf....).
3. **Eskumako Zutabeko Sarrera**: Eskumako zutabean dagoen aurkezpen testua editatzeko.
4. **Gure izena daukan html orrialde bat** (kasu honetan **Oier Araolaza**): orrialde hori erabili dezakegu gure aurkezpena egiteko: nor garen, blogaren helburuak, eta abar.

Lau elementu horietaz gain, nahi ditugun beste orrialde eta atalak ere gehitu ditzakegu hemen. Izan ere, zuetako gehienok elementu gehiago dituzue. Gehitu ahala, eskumako zutabean agertuko dira, eduki-zuhaitzean (gero ikusiko dugu).

3.2.- "editatu" pestaña

editatu botoiaren bitartez, une honetan gauden atala editatuko dugu.

1. Blogeko sarrera batean bagaude, blogeko sarrera bera editatuko dugu (gero ikusiko dugu).
2. Blogeko orri nagusian bagaude, blogaren izenburua editatuko dugu.



3.3.- "irudia" pestaña

Botoi honetan klikatuta, gure blogeko eskumako irudia aldatzeko aukera izango dugu. Gogoan izan gehitu beharreko irudi horrek neurri jakin bat izan behar duela: 200 pixel zabal eta 100 pixel altu. Lehenengo zuen ordenagailuan editatu argazkia, eta ondoren botoi honen bidez igo.




3.4.- "Aurkezpen testua"

Eskumako zutabeko sarrerako testua aldatu dezakezue bertatik. Izenburua ez da inon argitaratuko.


3.5.- "Kontakturako" pestaña

Blog guztiek daukate "Kontaktua" izeneko formulario bat. Formulario horren bitartez bidaliko dizkigute mezuak webgunetik. Pestaña horretan zehaztuko dugu gure zein helbide elektronikotan jaso nahi ditugun mezuak.



Bidaltzailearen izena eta e-posta beti berdinak izan behar dira, hor goikoak.

3.6.- "Zutabearen antolaketa" pestaña




Hor goiko elementuak lekuz aldatu, eta horrela erabakiko duzue ezkerreko zutabearen zein elementutzu agertu behar diren, eta zein ordenetan.

- here/portlet_ **bloginfo**/macros/portlet: **irudia eta aurkezpen-testua**
- here/portlet_ **navigation**/macros/portlet: **eduki-zuhaitza, eduki estatikoa**
- here/portlet_ **blogabout**/macros/portlet: **"honi buruz"**
- here/portlet_ **recent_comments**/macros/portlet: **azken erantzunak**
- here/portlet_ **recent_posts**/macros/portlet: **azken mezuak**
- here/portlet_ **tag_cloud**/macros/portlet: **etiketa-lainoa**

4.- Artikuluak gehitzeko

Artikuluak gehitzeko 4 urrats izango ditugu:

1. Blogera **sartu** (lehen aipatu dugun bezala), eta sarrera-orrian gaudela...
2. "**Elementuak gehitu**" pestaña klikatu eta "**blogeko sarrera**" aukeratu



3. Artikulua idatzi.

The screenshot shows the 'Blogeko sarrera editatu' form with the following sections highlighted:

- Izenburua:** The title field containing 'Artikuluaren izenburua'.
- Sarreratxoa:** The introductory text field containing 'Sarrera. Portadan agertuko da. Blogak ataleko zerrendan ere bai. Gure blogean ere, itxura grafiko ezberdinez nabarmenduko da.'
- Gorputza:** The main content area with a rich text editor containing 'Lauki honetan testua idatziko dugu...' and 'Loturak, irudiak eta nahi dugun guztia gehitzeko aukera izango dugu.'

- **Izenburua:** EibarOrg atariko portadan ere agertuko da
- **Sarrera:** Blogak ataleko zerrendan agertuko da. Gure blogean ere itxura grafiko ezberdinez nabarmenduko da.
- **Gorputza.** Loturak, irudiak eta nahi dugun guztia gehitzeko aukera izango dugu (hurrengo puntuan azalduko dugu).


Gainera, artikuluko bakoitzari **gako-hitzak** (tagak edo **etiketak**) gehitzeko aukera izango dugu. Lehendik atarian erabili izan diren etiketak aukeratu ditzakezue edo bestela, berriak sartu.

4. Argitaratu (egoera pestañan klikatuta)

4.1.- Artikuluak editatu

Lehendik argitaratuta ditugun artikuluak ere editatzeko aukera izango dugu. Horretarako:

- Aldatu nahi dugun artikulura joan (alderdi publikotik, nabigatuz)
- "editatu" pestaña klikatu eta artikulua aldatu (testua, sarrera, etiketak...)



The screenshot shows the Eibar.org website interface. At the top, there is a navigation bar with several buttons: 'iruzi', 'editatu', 'propietateak', 'trackbackak', and 'aliases'. The 'editatu' button is circled in red. Below this bar, there are links for 'akzioak', 'blogeko sarrera, karpetara gehitu', and 'egoera argitaratua'. The main content area features a large heading 'Blogeko sarrera editatu'. Below the heading, the date '2007/11/28' and the author 'dantza' are displayed. The title of the article is 'Izenburua (Beharrezkoa)' and the main text is 'Dantza ikasketak non?'. There is a section for 'Sarrera' (Introduction) with the text 'Mezuaren sarrera'. Below this is a large text area for editing the main content, labeled 'Mezuaren testua'. At the bottom, there is a rich text editor toolbar with various icons and a dropdown menu for 'Testuaren formatua' set to 'HTML'. The editor contains the following text: 'Argia, 2007-11-30' and a paragraph: '"Edozein ergelek zuzendu dezake estatu bat eta futbol entrenatzaile izateko karneta behar da?". Piterman-ek —futbol taldeak hondoratzeko espezialista den ukrainiar aberatsak— mozkorren eta eroen pareko egiak esaten dituela frogatu zuen esaldi horrekin. Arrazoi osoa zuen. Titulu gabe ezinezkoa gertatzen zaigu lanpostu txukunik —presidentearena salbu— aurkitzea. Gaur egun edozer gauza ikasi daiteke eta edozein jakintza arlotan eskura daiteke ditzosozko agiria. Badira salbuespenak ordea. Euskal dantza tradizionalen adibidez, ez daukagu ez ikasketarik ez karnetik."


5.- Elementuak gehitu

Orain arte, artikulu berriak gehitzeko aukera ikusi dugu, baina elementu gehiago ere gehitu ditzakegu gure blogera: fitxategiak (excel, pdf... dokumentuak), irudi eta argazkiak (jpg formatuan) eta atalak.

Materiala gehitzeko "elementuak gehitu" pestaña erabiliko dugu.

1. Blogaren erroan bagaude, 3 elementu mota gehitu ahalko ditugu:
 - a. Blogeko sarrerak (artikulua)
 - b. Karpeta (azpiatal berria)
 - c. Orria (atal berria)
2. "images" karpetan bagaude, 4 elementu mota gehitu ahalko ditugu:
 - a. Karpeta
 - b. Orria
 - c. Irudia
 - d. Fitxategia

Aukera hau, gehienbat, irudiak eta fitxategiak gehitzeko erabiliko dugu. Gure webgunean irudi bat erakutsi nahi dugunean edo fitxategi batera (pdf bat, excel bat, word bat...) lotura egin nahi dugunean, "images" karpetan gehitu beharko dugu lehenengo. Horretarako, ondorengo formularioa erabiliz:




The screenshot shows a web interface with a navigation bar at the top containing buttons for 'edukiak', 'ikusi', 'editatu', 'propietateak', 'partekatzea', 'aliases', and 'zutabeak editatu'. Below this is a secondary navigation bar with dropdown menus for 'akzioak', 'bistaratzeko unitatea', 'elementuak gehitu', and 'egoera zirriborro publikoa'. The main content area displays a folder named 'images'. A red circle highlights the 'elementuak gehitu' dropdown menu, which is open and shows options: 'fitxategia', 'irudia', 'karpeta', 'orria', and 'murriztu...'. Below the folder view is a table with columns: 'Izenburua', 'Tamaina', 'Aldatze...', 'Egoera', and 'Ordena'. The table contains four rows of image files.

<input type="checkbox"/>	Izenburua	Tamaina	Aldatze...	Egoera	Ordena
<input type="checkbox"/>	2003-01-13_maskarSohuta01.jpg	32.7 kB	2007/12/14 12:28	Zirriborro Publikoa	▲ ▼
<input type="checkbox"/>	2003-01-13_maskarSohuta53.jpg	59.4 kB	2007/12/14 12:28	Zirriborro Publikoa	▲ ▼
<input type="checkbox"/>	2003-01-13_maskarSohuta82.jpg	61.3 kB	2007/12/14 12:28	Zirriborro Publikoa	▲ ▼
<input type="checkbox"/>	2004-07-16_GureAmetsa 01.jpg	62.6 kB	2007/12/14 12:28	Zirriborro Publikoa	▲ ▼

Oharra: elementuak nola gehitu, nola antolatu, eta abarrak, ikastaroan ikusiko ditugu. Ez bazatoz ikastarora, idatzi eta galdetu.

6.- Testu editorea (KUPU)

Blogeko elementuak idazteko eta editatzeko "kupu" izeneko editore bat daukazue. Edozein testu-editoreren antzerakoa da. Testua txukuntzeko eta egokitzeak aukera emango digu: negritak, etzanak, sangriak (1),... Horrez gainera, aurrez zehaztuta ditugun formatuak emateko aukera era badaukagu (5) (lehenengo eta bigarren mailako izenburuak). Eta elementuak gehitzeko aukera ere ematen digu (irudiak(2), loturak(3), taulak(4)...)



6.1.- Loturak

Loturak egiteko orduan, klikagarri izan nahi dugun elementua aukeratu eta loturen ikurra klikatu:

- **Kanpo loturak** (munduaren ikonoa): formularioan helbidea sartu.
- **Barne loturak** (katearen ikonoa): webgunearen zuhaitza agertuko zaigu, eta zuhaitz horretan aukeratu nora egin nahi dugun lotura (gure blogeko, edo EibarOrg webguneko beste edozein orrialdera).

6.2.- Argazkiak

Argazkia testuan txertatu aurretik, lehenengo, "images" karpetara igo behar dugu (lehenago ikusi dugun moduan). Ondoren, zuhaitzaren ikonoan klikatu eta eduki zuhaitza agertuko zaigu. Zuhaitzean gora eta behera joan, eta "images" karpetara joan beharko gara. Argazkia bilatu eta aukeratu.

Argazkia gehitzeko orduan, irudia zein neurritan eta non (ezker edo eskuma) sartu nahi dugun ere aukeratu ahal izango dugu.

Oharra: argazkien inguruko azalpen gehiago ikastaroan.